

ZIMURDURAK

Andoni EGAÑA

Isabel Preysler



Isabel Preysler

Pl matematikoaren balioa eta Amerika topatu zuteneko urtea gehienok dakizkigu buruz. Tejeororen fetxoriaren data zehatza, Frantziako iraultzarena edota Gernika bonbardeatu zutenekoa ere bai askok eta askok. Orain, Isabel Preysler eta Miguel Boyer-ek elkar lanean egindako umearen jaiotza eguna eta pisua ere buruan eduki beharko ditugu nahi eta nahi ez.

Nork ez daki hiru kilo eta hogeitamar gramo egin duela balantzan? Ba al da Piscis zeinupekoa eta Cáncer aszendenteak dela ez dakienik? Nork ez daki Ana jarri diotela izentzat?

Gauza hoiek jakin beharra dago, uste-gabea bezala baina xehetasun hoiak jakitun izan behar dugu gaur egunean, behiala "cultura general" deitzen zuten haren barne daude eta. Pentsa deza kezue seko eginda nagoela, haundizkien gorabehera hainbesteko jaramona egitea txatxukeria dela, haiek ez digutela guri jaten ematen. Baina erantzun primitiboa litzateke, Athletic-ek

irabazten duenean txoria baino alaiago ibili eta galtzen duenean "Neri bost ajo-la. Bihar berdin berdin joan beharko diat lanera" esateko ohitura duen lagun batenaren antzekoa.

Kontuak kontu emakume honek bizitzen badaki. Batetik bestera ibili da, baina beti ere mejoran. Orain, Julio Iglesias-ek hilean ia milioia eta txekel Chabeli deritzana pasatzen omen dio. Bigarrenak, markesak, ez dakit zenbateko etxea utzi zion, hirugarrenak, Boyer-ek, urtean ehun milioi etxeratzen dion bitartean. Andre honek merezi ditu Telediarrio-etako, Teleberri-etako, aldizkari eta egunkarietako minutu nahiz lerroak. Lortu duen hori lortzea ez dago edozeinen esku.

Eta gainera, txiste-gai bikainak izaten dira horrelakoak. Gogoan dut aurtengo ihauterietan Cadiz-ko talde baten koplen nondik norakoa. Isabel Preysler-ek haserretzean honako mehatxua luzatzen omen die bere semealabei: "Zure aitari esango diot eta zureari ere bai eta baita zureari ere".

Pedro Almodovar

Don Kijote bere paisanoa bezalaxe esku-hutsik itzuli da bidaiatik bueltan Almodóvar. Honi, Telefonica-n abiatu, Madrilgo mugidan pasa eta zinearen bidez goi-goiko puntara iristeko asmoak porrot egin dio oraingoz. Bidean baina, Don Kijotek zaplastekoak jaso bazituen zine-zuzendariak milioiak pilatu ditu.

Tipo puztua da Almodóvar, itxuraz janari eta edanari emana, estuasunek mellari egiten ez diotena. Ilea berezkoa izango du baina peluka dirudi, buruan sorturiko zerbait izan ordez buruan jarritikoa. Matrail batean orina. Denera, XVIII mendeko frantziar bat, polainak eta galtza estu-estuak jantziko bagenizkio.

Almodóvarren inbentua despanpananteak ez ziren neskak izar bilakatzean datza. Esate baterako Carmen Maura eta Rosi de Palma. Batek Monky kafea anuntziatzen bazuen bestea Nescafearen iragarki aproposa izan daiteke. Behin Rosi hau aurrez aurre ikusteko parada izan nuen eta jentia iruditu zi-

tzaidan haren aurpegiko osakaiei distribuzio bitxia: hemen begi bat, sudurra ez dakit non, beste begia gogoak ematen zion tokian...

Zinearekin gertatzen dena zelebrea da. Batzuk oso jakituntzat daukate bere burua. Besteek, jenderik xumeek, ezer ez dutela ulertzen aitortuko dizute. Baina bada tartekorik; hoiek, "pero hay que ver qué bien trabajaban", "tenía una buena fotografía" eta horrelako mozolokeria gezak botako dituzte ondo geratzeko. On ala txar irizpideen inguruan epaitzen irakatsi digute, adimen eskas xamarrekook behintzat, gustatu ala gustatu ez esanda konformatu beharko genukeenean.

Almodóvarren azken filma ez dut ikusi, lehen egindako bat edo beste ikusi badut ere. Hark, lehen ikusitako filmeak alegia, ez zidan aparteko zirrararik sortu, baina Iparrameriketan ere hainbeste goratu dutenerako izango du zerbait zinegile honek. Ez duena, eta hori garbi dago, Oscar-a da.



o Almodovar

Julia Otero

Neri gustatzen zait.

Normala da bai, zuei ere atsegina gertatzea. Zerbait badu, zer den ondo ondo adieraztea xamurra ez bada ere. Aldi berean da etxeko xamarra eta izar urruna. Horretan datza bere arrakasta, naturaltasunean.

Ederretan eder izan gabe, polita da, xalada esango nuke, plantxari esker bat hemen bestea han zutitu arazitako ile hoiak ematen diote gazte xaloaren tankera.

"3x4" bazkalondotako zuzeneko programan agertu zen estreinekoz telebistan, eta berez erdipurdiko saioa zena jende askoren zita bihurtu zuen. Gizonezkoek hurbileko emakumetzat hartzen zuten, ez izar harroputz eskuraezin hoietakotzat edo prepara prepara eginda zer edo zer baina gainontzean hutsa diren emakume hoietakotzat.

Emakumezkoek ere haien moduko bat ikusten dute Juliarengan, ahaleginduta eredutzat hartzeko modukoa.

Orain, "La luna" programan jarri dute. Trinca-ren saioak hondarrera iritsi direnean. Elkarrizketa saioa da nagusiki. Lehen programan satre desastre bat zuen solaskide, hortzez eta hortzaginez ondo osatua baina kalentura baino arraroagoa gizarajoa. Ez zion behar adina zukurik atera, zukurik bazuen behintzat. Bigarrenean aldiz, Anthony Quinn harrapatu zuen esku tartean eta orduan bai, elkarrizketa goxoa egin zion, interesgarria, itzulinguruka hasten zenean esparrura sarrarazteko adinako trebetasunez burutua.

Ikusteko dago beti horrelakorik lortuko duen, baina nik ahal dudala asteartero piztuko dut telebista ezpainak nola boro-biltzen dituen edo matrailetako zulo-txoak zenbateraino azaltzen zaizkion ikusteko.



Julia Otero

Fede Etxabe

FEDE profesioaletara pasa zeneko oroitzapen batzu baditut. Ez zen karreteran hainbestearino nabarmentzen, eta ziklo-kross denboraldian egiten zituen posturik onenak. Horregatik, bere lehen argazki haietan, aurpegia lokatzez zipriztindua eta buruan kaskoa zuela agertzen zen.

Gazteagotan, matrail-hezurak ez zituen beste txirrindulari askok bezain bistan eta zaildu gabea zirudien. Gero, duela pare bat edo hiru bat urte, sprinterren lantzatzaile soil izatetik helburu jasoagoei aurre egiteko moduko ziklista zela azaltzera ausartu zen, kilo mordoa galdu eta txitxi-ezpatak baino zorrutzagoko musajea jarriaz.

Bukatu berri den Espainiako itzulian bera izan da protagonista nagusieta, eta euskaldunentzat nagusia, telebista espainiarraren kamarak azken azkenerarte edozein mutil koskorrek bazekien Etxaberen aldarte onaren jakitun izan ez.

Eta Etxaberen izenarekin batera Pinorena ibili da denen ahotan. Pino da beste gizon bat ia hutsetik irten eta ahaleginduenaren poderioz goiko mailara iritsi ahal izan dena, behar bezain txu-

kun ez zebilela eta bizikleta utzi eta talde mekaniko lanetan jarri zutena ia. Gero, Alberto Fernandez zenaren pintxe lanak egitea egokitu zitzaion, harik eta bera talde-buru ere izan zitekeela ondo frogatu zuen arte.

Baina zenbaiti errezegi sartzen kaskoan handi-haizeak! Alferrik zurituko du bere burua, dexentea bestalde proportzioan, Espainiako itzulian gertatua ez baita nobedade. Aurtengo Euskal Herriko itzulian bertan, Fede atzera gertatzean Pinok eta Fuertek tira zuten Aritxulegi eta Aginan gora, gerora horrela zertan jokaturik ez zutela garbi geratu bazen ere, gainera, Minguez zuzendaria beti bat izan du niniko, besteari erlojuaren aurkako probetan bere konpainia ere ukatuz.

Daitekeena da Pinok berak errurik ez izatea eta gailego-haizea izatea kirolarien buruak transtornatu eta hauek zuri, antzezle eta mainoso bihurtzen dituen. Begira bestela Alvaro Pinoren paisano diren Buyo eta Fernando Romayren kasuei.

Nolanahi ere, baten setak ez dezala behintzat bestearen meritua urritu.



Fede Etxabe